

Urtarrilaren 1ean
Eguberri zortzigarrena
JAINKOAREN AMA MARIAREN FESTA BURUA (B)

Otoitza

Jainko Jauna, Maria Birjina ama eginez,
 betiko salbamena eman diozu gizakiari;
 iguzu, biziaren iturria den
 Jesu Kristo zure Semea ekarri diguna,
 laguntzaile ere izan dezagula zure aurrean.
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Zen 6, 22-27

*Honela aipatuko dute nire izena israeldarren gainean,
 eta Nik bedeinkatuko ditut.*

Zenbakien liburutik

Jauna honela mintzatu zitzaion Moisesi: «Hitzegiozu Aaroni eta haren seme-alabei, eta esan:
 Honela bedeinkatuko dituzue israeldarrak:
 "Bedeinka zaitzala Jaunak, eta zaindu.
 Ager diezazula Jaunak bere aurpegi argia,
 eta erruki dadila zutaz.
 Ager diezazula Jaunak bere aurpegia,
 eta eman bere bakea".
 Honela aipatuko dute nire izena israeldarren gainean, eta Nik bedeinkatuko ditut».

ERANTZUN SALMOA: Sal 66, 2-3. 5. 6 eta 8

R/. Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala.

Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala,
 ager diezagula aurpegi alaia;
 ezagutu dezaten lurrean zure bidea,
 herri guztietan Zugandiko salbamena. R/.

Poztu bitez kantari atzerriak,
 zuzenbidez baitaramazu izadia;
 zintzo baitituzu gidatzen herriak,
 eta zaintzen lurrean atzerriak. R/.

Ene Jainko, ospa zaitzate herriek,
 ospa zaitzate herri guztiek.
 Jainkoak bedeinka gaitzala,
 lur bazter guztiek beldur diotela. R/.

II. IRAKURGAIA: Ga 4, 4-7

*Bere Semea bidali zuen Jaungoikoak,
emakumearengandik jaioa.*

San Paulo Apostoluak Galaziarrei

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumearengandik jaioa, Legepeko egina, Legepean zeudenak erostera, guk semeordetza har genezan. Eta seme-alaba zaretelako, bere Semearen Espiritua bidali du Jaungoikoak zuen bihotzetara, «Abba! Aita!» deika ari dena. Beraz, gehiago ez zara morroi, seme baizik; eta seme bazara, baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

EBANJELIOA: Lk 2, 16-21

Aleluia: Heb 1, 1-2

R/. Aleluia.

V/. Askotan eta era askotara
hitzegin zien Jaungoikoak Profeten bidez
aspalditik gure arbasoei;
eta azkenak diren egun hauetan,
Semearen bidez hitzegin digu. R/.

*Han aurkitu zituzten Maria, Jose eta haurra...
Zortziurrena bete zenean, «Jesus» ezarri zioten izen.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, artzainak lasterka joan ziren, eta han aurkitu zituzten Maria eta Jose, eta haurra askan etzana. Ikusi zutenean, jakin erazi zuten, haur hartaz esan zitzaiena.

Entzun zuten guztiak harriturik gelditu ziren, artzainek esaten zutenarekin. Mariak, berriz, gogoan jasotzen zituen gauza guzti hauek, bere bihotzean hausnartuz.

Eta artzainak Jaungoikoari aintzaka eta goraka itzuli ziren, entzun eta ikusi zutenarengatik.

Haurra erdaintzeko zortziurrena bete zenean, «Jesus» ezarri zioten izen, sabelean sortu baino lehenago aingeruak esan zuen izen bera.

Oparigaien gainekoa

On guztien hasiera eta betetzaila zaren Jauna,
Jainkoaren Ama dohatsuaren jai honetan eskatzen dizugu,
gaur salbamenaren hasierak pozten gaituenok
egunen batean salbamen horren betea irits dezagula.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Andre Mariarena

Jaunartze ondorengoa

Pozik hartu ditugu, Jauna, zeruko sakramentuak;

balia bekizkigu betiko bizitzarako,
Maria Birjina
Jaungoikoaren eta Elizaren Ama
aitortzen dugunoi.
Jesu Kristo.